Errenteriako Udala
Zk./ Nº 2022/2
Data / Fecha 2022/01/26
AKTA / ACTA

**Espediente zk./**Nº Expediente**:** 2022IUBA0001
**Gaia/**Asunto**:** 2022/01/25eko ohiko Udalbatzarra bilkura telematikoa / Pleno ordinario telemático del 25/01/2022
**Eskatzailea/**Solicitante**:** ERRENTERIAKO UDALA **NAN(IFK)/**DNI(NIF): P2007200E

**Udalbatzak 2022ko urtarrilaren 25an eginiko ohiko bilkurari dagokion akta.**

2022ko urtarrilaren 25eko 18:30ak zirela, modu telematikoan (martxoaren 31ko 11/2020 EDLk 7/1985 Legeko 46. artikuluan sortutako 3. atal berriak xedatutakoaren baitan), lehenengo deialdian eta Aizpea Otaegi Mitxelena Alkatearen esanetara (EH Bildu Orereta/Errenteria), ondoko zinegotziak elkartu dira, guztiak espainiar lurraldean kokatuak:

***EH Bildu Orereta/Errenteria***

- Alazne KORTA ZULAIKA
- Itziar OSTOLAZA GALDOS
- Eñaut GRACIA IBARRA
- Bernar LEMOS TABERNA
- Garazi LOPEZ DE ETXEZARRETA AUZMENDI
- Eneko DEL AMO JIMÉNEZ
- Jose Ramon GURRUTXAGA ZUBIZARRETA
- Iñaki QUERALT COIRA

***Euskal Sozialistak/Socialistas Vascos (ES-SV)***

- Jose Angel RODRIGUEZ MEDINA
- Montserrat LUIS CANO
- Isaac PALENCIA CABALLERO

**Acta de la sesión ordinaria de Pleno de la Corporacion celebrada el día 25 de enero de 2022.**

Siendo las 18:30 horas del día 25 de enero de 2022, en sesión telemática (de acuerdo con lo dispuesto en el nuevo apartado 3 del art. 46 de la Ley 7/1985 introducido por la Disposición Final 2ª del Real Decreto Ley 11/ 2020 de 31 de marzo), se reúnen en primera convocatoria, bajo la presidencia de La alcaldesa Aizpea Otaegi Mitxelena (EH Bildu Orereta/ Errenteria), las y los siguientes Concejalas y Concejales radicados en territorio español:

***EH Bildu Orereta/Errenteria***

- Alazne KORTA ZULAIKA
- Itziar OSTOLAZA GALDOS
- Eñaut GRACIA IBARRA
- Bernar LEMOS TABERNA
- Garazi LOPEZ DE ETXEZARRETA AUZMENDI
- Eneko DEL AMO JIMÉNEZ
- Jose Ramon GURRUTXAGA ZUBIZARRETA
- Iñaki QUERALT COIRA

***Euskal Sozialistak/Socialistas Vascos (ES-SV)***

- Jose Angel RODRIGUEZ MEDINA
- Montserrat LUIS CANO
- Isaac PALENCIA CABALLERO

ESKU94217e6e-e6c9-4926-ab39-73e91836e4fb

- Joseba ECHARTE MARTÍN

- Yosleidy Cristina FERRERA CEDEÑO

- Iñaki RUIZ ALONSO

***EAJ-PNV***

- Maite PEÑA LÓPEZ

- Elixabete MURUA MINDEGUIA

- Garbiñe OYARBIDE IRURETAGOYENA

***Elkarrekin Errenteria***

- Maite GARTZIA ONTIVEROS

- José Manuel FERRADÁS FREIJO

- Xabier SÁNCHEZ AGUIRREGOMEZCORTA

- Joseba ECHARTE MARTÍN

- Yosleidy Cristina FERRERA CEDEÑO

- Iñaki RUIZ ALONSO

***EAJ-PNV***

- Maite PEÑA LÓPEZ

- Elixabete MURUA MINDEGUIA

- Garbiñe OYARBIDE IRURETAGOYENA

***Elkarrekin Errenteria***

- Maite GARTZIA ONTIVEROS

- José Manuel FERRADÁS FREIJO

- Xabier SÁNCHEZ AGUIRREGOMEZCORTA

Bertan dago, egintza fedatzeko, Nagore Sarasola Otermin Idazkaria.

Era berean, bertan dago Irune Soto Cotorro udal Kontuhartzailea.

----------

**1. 2022ko urtarrilaren 10eko 2022/39 zenbakidun alkatetza-dekretuaren berri ematea: Batzorde informatzaileak, Tokiko Gobernu Batzordeak eta osoko bilkurak urrunean bitarteko telematikoen bidez burutzea COVID-19aren transmisio komunitario oso altuaren ondorioz ezinbesteko egoera honek arrisku kolektibo larria eragiten baitu eta eragozten baitu edo ikaragarri zailtzen baitu saio horiek aurrez aurre egin ahal izatea. (2022IUBA0001)**

Asiste y da fe del Acto La Secretaria Nagore Sarasola Otermin.

Igualmente asiste La Interventora Municipal Irune Soto Cotorro.

----------

**1. Dar cuenta del decreto de Alcaldía 2022/39 del 10/01/2022: Sesiones de comisiones informativas, Junta de Gobierno Local y pleno a distancia por medios telemáticos, en tanto en cuanto concurre una situación excepcional de fuerza mayor derivada de la transmisión comunitaria muy alta del Covid-19 que genera grave riesgo colectivo que impide o dificulta de manera desproporcionada el normal funcionamiento del régimen presencial de dichas sesiones. (2022IUBA0001)**

ESKU94217e6e-e6c9-4926-ab39-73e91836e4fb

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

El Pleno queda enterado.

**2. Udalbatzak 2021eko abenduaren 15ean eginiko ohiko osoko bilkurari dagokion bideo-akta, egoki bada, onartzea. (2021IUBA0012)**

**2. Aprobación en su caso de la videoacta correspondiente a la sesión ordinaria del 15 de diciembre de 2021. (2021IUBA0012)**

Oharrik gabe onartu da.

Se aprueba sin observación alguna.

**3. Ondorengo ebazpenen berri ematea: Alkatetzarenak eta Zinegotzi-ordezkarienak, 2021eko 3175 zk.tik 3368 zk.ra, (biak barne) eta 2022ko 1 zk.tik 87 zk.ra, (biak barne), eta Tokiko Gobernu Batzordearenak.**

**3. Dar cuenta de Resoluciones de la Alcaldesa y de Concejales Delegados, números 3175 al 3368 (ambos incluidos, correspondientes a 2021), números 1 al 87 (ambos incluídos, correspondientes a 2022), y de la Junta de Gobierno Local.**

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

El Pleno queda enterado.

**4. Proposamena: 2022rako soldata igoera. (2021RPOL0137)**

**4. Propuesta: Incremento salarial ejercicio 2022. (2021RPOL0137)**

Urte bakoitzerako Estatuko aurrekontu orokorren legeak ezartzen du urtero toki-korporazioetako soldatek edo langile-gastuek izan dezaketen igoeraren muga. Ildo horretan, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen Testu Bateginaren 21. artikuluak (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartua) xedatzen du ezingo dela adostu urtero Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak langile-gastuetarako ezarritako mugak baino soldata-masaren igoera handiagoa.

La Ley de Presupuestos Generales del Estado para cada año fijará los límites al incremento de las retribuciones o gastos de personal de las Corporaciones Locales. En este mismo sentido el art. 21 del Texto Refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público, aprobado por RD Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, (en adelante TREBEP) al disponer que no podrán acordarse incrementos retributivos que globalmente supongan un incremento de la masa salarial superior a los límites fijados anualmente en la Ley de Presupuestos Generales del Estado para el personal.

2022ko ekitaldirako, abenduaren 28ko 22/2021 Legea onartu da, 2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa. III. tituluko I. kapituluan, sektore

Para el presente ejercicio 2022, se ha aprobado la Ley 22/2021, de 28 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2022. En el

ESKU94217e6e-e6c9-4926-ab39-73e91836e4fb

publikoaren zerbitzuko langileen gastuei buruzkoan, eta, zehazkiago, 19. artikuluko bigarren eta laugarren paragrafoetan, honako hau ezartzen da:

capítulo I del título III relativo a los gastos de personal al servicio del sector público y más concretamente en los apartados dos y cuatro de su artículo 19 establece lo siguiente:

*Dos. En el año 2022, las retribuciones del personal al servicio del sector público no podrán experimentar un incremento global superior al 2 por ciento respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2021, en términos de homogeneidad para los dos períodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad del mismo. Los gastos de acción social no podrán incrementarse, en términos globales, respecto a los de 2021. A este respecto, se considera que los gastos en concepto de acción social son beneficios, complementos o mejoras distintos a las contraprestaciones por el trabajo realizado cuya finalidad es satisfacer determinadas necesidades consecuencia de circunstancias personales del citado personal al servicio del sector público.*

*Cuatro. 1. La masa salarial del personal laboral, que podrá incrementarse en el porcentaje máximo previsto en el apartado Dos de este artículo, en términos de homogeneidad para los dos períodos objeto de comparación, está integrada por el conjunto de las retribuciones salariales y extrasalariales devengadas por dicho personal en el año anterior.*

**ARAUDI APLIKAGARRIA**

* 22/2021 Legea, abenduaren 28koa, Estatuaren 2022erako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

* 11/2021 Legea, abenduaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2022ko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena

* 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena (EPOETB).

* 6/1989 Legea, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.

* Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.

Giza Baliabideetako arduradunak txostena eman du 2022ko urtarrilaren 13an.

Ikusirik Udal Kontuhartzaileak idatzitako txostena.

**LEGISLACIÓN APLICABLE**

* Ley 22/2021, de 28 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2022.

* Ley 11/2021, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2022

* Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público (TREBEP).

* Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca.

* Ley 7/1985 de 2 de abril que regula las Bases del Régimen Local.

La responsable de Recursos Humanos ha emitido informe con fecha 13 de enero de 2022.

Visto el informe de fiscalización emitido por la

ESKU94217e6e-e6c9-4926-ab39-73e91836e4fb

Intervención Municipal.

Giza Baliabideetako delegatuak egindako erabaki-proposamena eta Giza Baliabideetako arduradunak espedientean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

Vista la propuesta de acuerdo de la Delegada de Recursos Humanos, y la conformidad dada por la responsable de Recursos Humanos a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

2022ko urtarrilaren 19an, Giza Baliabideetako Delegatuak proposatuta, Antolaketa batzordeak gai honen aldeko irizpena eman dio.

Visto que en fecha 19 de enero de 2022, a propuesta de la Delegada de Recursos Humanos, la Comisión de Organización dictamina favorablemente el presente asunto.

Udalbatzarrak, aho batez, aldeko 21 botorekin (EH Bildu Orereta/Errenteria, Euskal Sozialistak/Socialistas Vascos (ES-SV), EAJ-PNV, Elkarrekin Errenteria),

El Pleno de la Corporación, por unanimidad, con 21 votos a favor (EH Bildu Orereta/Errenteria, Euskal Sozialistak/Socialistas Vascos (ES-SV), EAJ-PNV, Elkarrekin Errenteria),

**ERABAKI DU**

**ACUERDA**

**LEHENENGOA**. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, %2ko ordainsari-igoera orokorra baimentzea, 2021eko abenduaren 31n indarrean dauden urteko ordainsari osoen aldean, Errenteriako Udalaren zerbitzura diharduten funtzionarioentzat eta lan-kontratuko langileentzat.

**PRIMERO**. Autorizar, con efectos de 1 de enero de 2022, un incremento retributivo general del 2% con respecto a las retribuciones anuales íntegras vigentes a 31 de diciembre de 2021, para el personal funcionario y laboral al servicio del Ayuntamiento de Errenteria.

**BIGARRENA**. Aurrekontua Exekutatzeko Arauan jasotako zinegotzien eta behin-behineko langileen ordainsari-mailak ehuneko berean baimentzea, udallangileen ordainsari-mailekin bat etor daitezen.

**SEGUNDO**. Autorizar en el mismo porcentaje los niveles retributivos de los corporativos y del personal eventual, recogidos en la Norma de Ejecución Presupuestaria, al objeto de que se sigan correspondiendo con los niveles retributivos del personal municipal.

**HIRUGARRENA**. Akordio honen berri eman Errenteria Musikal udal erakunde autonomoaren presidenteari, dagokion erabakia har dezaten bere erakundean.

**TERCERO**. Informar a la presidencia del organismo autónomo municipal Errenteria Musikal para que adopten el acuerdo correspondiente en los mismos términos.

**LAUGARRENA**. Akordioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**CUARTO**. Publicar el acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

**5. Proposamena: Gamongoa 56. sektoreari dagokion Hiri Antolamenduko Plan orokorraren 6.**

**5. Propuesta: 6ª Modificación Puntual del Plan General de Ordenación Urbana relativa al Sector**

ESKU94217e6e-e6c9-4926-ab39-73e91836e4fb

**Aldaketa. Behin betiko onespena emateko proposamena. (2018MPGE0001)**

## AURREKARIAK

HAPOren 6. aldaketa honen helburua eraikigarritasuna lekualdatzea da, eremuaren ekialdeko beheko aldera eramanda, eta Gamongoako goiko aldea eraikin puntualetarako soilik utzita. Mendi-hegalaren goialdeko eta erdialdeko azaleraren zati handi bat eraikinik gabe uztea, udal-parke publiko bat lortzeko. Irtenbidea ematea Gamongoa muinora sartzeko egungo pasealekutik/bidetik hurbil oraindik egiteko dauden behin betiko birkokatzeei, eta bi etxebizitzako partzela txikiak txertatzea. Arramendi pasealekuaren inguruan bizitegi-auzo berri bat sortzea; 610 etxebizitza eraikitzea aurreikusten da. 18/03 esku-hartze unitatearen eraikigarritasunaren arazoa konpontzea, eremuaren iparraldeko antolamenduaren hasierara eramanda. Arramendi pasealekuaren inguruan hiri-parke bat sortzea, espazio libreen tokiko sistema gisa, bertan aurreikusitako bizitegi-eraikinekin batera. Bizitegi-eraikin berriak elkarrekin eta herrigunearekin lotuko dituen oinezkoen pasealekua integratzea; bizikleta-ibilbide bat osatzea oinezkoen pasealeku horren aldamenean, oinezkoentzako eta bizikletentzako eremu horretan guztian. Bizitegi-eraikinen mendebaldean bide-trazadura berria. Kirol-ekipamendu publikorako espazio lau bat sortzea Langaitz ikastolatik hurbil. Arramendi erreka tratatzea eremu horretatik igarotzean, Arramendi pasealekuaren iparraldean hasi, eta Masti-Loidi eremutik desbideratu arte.

Udalbatzak, 2021eko apirilaren 27an egindako osoko bilkuran, behin-behinean onartu zuen, baldintzatzaileekin, Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 6. aldaketa puntuala, Gamongoa-56. sektoreari buruzkoa, 2020ko uztaileko dokumentuaren arabera; dokumentu hori Akilan Arquitectos Asociados S.L.P, Abad Abogados, S.L

**56: Gamongoa. Propuesta de aprobación definitiva. (2018MPGE0001)**

## ANTECEDENTES

La presente 6ª Modificación del PGOU, tiene por objetivo desplazar la edificabilildad a la zona baja al este del ámbito, reduciendo a edificaciones puntuales la zona alta de Gamongoa. Liberar de la edificación gran parte de la superficie de lo alto y medio de la ladera para la consecución de un parque público municipal. Resolver los realojos definitivos aún pendientes de su ejecución próximos al paseo/vial actual de acceso a la loma de Gamongoa, junto a la inclusión de pqueñas parcelas bifamiliares. Generar un nuevo barrio residencial en el entorno del Paseo Arramendi; se contempla la construcción de 610 viviendas. Resolver la problemática de la edificabilidad de la U.I. 18/03, traslándola al inicio de la ordenación en la parte norte del ámbito. Crear un parque urbano a modo de sistema local de espacios libres en el entorno del Paseo Arramendi que acompaña a la edificación residencial prevista en él. Integrar el paseo peatonal que conecta la nueva edificación residencial entre si y con el centro urbano; complementación de un recorrido ciclista junto al paseo peatonal en todo este ámbito peatonal-ciclista. Nuevo trazado viario por el oeste de la edificación residencial. Generar un espacio llano de equipamiento público deportivo próximo a la Ikastola Langaitz. Tratamiento de la regata Arramendi a su paso por el ámbito en la zona Norte del Paseo Arramendi hasta su desvio por el ámbito de Masti-Loidi.

El Pleno de la Corporación acordó en sesión celebrada con fecha 27 de abril de 2021 aprobar provisionalmente con condicionantes la 6ª Modificación Puntual del Plan General de Ordenación Urbana, relativa al sector 56 Gamongoa, según documento de fecha julio 2020, redactado por Arkilan, Arquitectos Asociados S.L.P., Abad

ESKU94217e6e-e6c9-4926-ab39-73e91836e4fb

eta Endara Ingenieros S.L..P. enpresek idatzi zuten, eta barne hartzen du ingurumen-azterketa estrategikoa (Kimar Consultores Ambientalesek idatzia).

Era berean erabaki zen , espedientearen kopia osoa igortzea Eusko Jaurlaritzako ingurumen-organoari (Ingurumen Saila), ingurumen-adierazpen estrategikoa egiteko eskatuz.

2021eko ekainaren 21ean, Administrazio-espedientea, dokumentazio teknikoarekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordera bidali zen, dokumentuari behin betiko onespena eman aurreko nahitaezko txostena eskatzeko.

2021eko uztailaren 15eko ebazpena egun berean sartu zen udaletxean, 2021eko uztailaren 15ean, Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita Gamongoa-56. sektoreari buruzko Errenteriako HAPOren 6. aldaketa puntualaren **ingurumen-adierazpen estrategikoa**.

2021eko abenduaren 22an Lurralde Antolamendurako Batzordeak ziurtagiria bidali zuen, EAEko Lurralde Antolamendurako Batzordearen Gipuzkoako Hirigintza Plangintzako Atalak 2021eko abenduaren 21ean hartutako erabakiaren berri emateko; izan ere, **aldeko txostena** ematea erabaki zuen *Errenteriako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 6. aldaketa puntuala, 56.sektorea: Gamongoa* espedienteari dagokionez.

Txosten horrek Uraren Euskal Agentziak egindakoa barne hartzen du: aldeko txostena da, baina sei baldintzatzaile ezartzen ditu, eta aintzat hartu zuen Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak egindako txostena ere, Udalari 2021eko urriaren 19an bidalitakoa.

2022ko urtarrilaren 10ean txostena egin zuten Xabier

Abogados, S.L. y Endara Ingenieros S.L.P. que contiene el Estudio Ambiental Estratégico (redactado por Kimar, consultores Ambientales).

Igualmente, se acordó remitir copia completa del expediente al órgano ambiental del Gobierno Vasco (Departamento de Medio Ambiente), solicitando la emisión de la declaración ambiental estratégica

Se remitió con fecha 21 de junio de 2021 el expediente administrativo, junto con la documentación técnica, a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, al objeto de solicitar informe preceptivo previo a la aprobación definitiva del mismo.

La Resolución del Director de Calidad Ambiental y Economía Circular del Gobierno Vasco por la que se formula la **Declaración Ambiental Estratégica** de la 6ª modificación puntual del PGOU de Errentaria relativa al Sector 56- Gamongoa de fecha 15 de julio de 2021 tuvo entrada en el Ayuntamiento el mismo día, 15 de julio de 2021.

La Comisión de Ordenación del Territorio remite con fecha 22 de diciembre de 2021 certificado del acuerdo adoptado por la Sección de Planeamiento Urbanístico de Gipuzkoa de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, de fecha 21 de diciembre, **informe favorable** al expediente de la 6ª Modificación Puntual del Plan General de Ordenación Urbana, relativa al sector 56: Gamongoa.

Dicho informe incluye el emitido por Ur Agentzia, que siendo favorable impone seis condicionantes, que a su vez tuvo en consideración el informe emitido por la Confederación Hidrográfica del Cantábrico, remitido al Ayuntamiento con fecha 19 de octubre de 2021.

Se emite con fecha 10 de enero de 2022 informe por

ESKU94217e6e-e6c9-4926-ab39-73e91836e4fb

Agirre udal arkitektoak, Iñaki Azkarate ingurumeneko goi-mailako teknikariak, Vicente Castiella udal aholkulari juridikoak eta Nagore Sarasola idazkari nagusiak, dokumentua behin betiko onartzearen aldekoa.

Lurraldea Batzordeburuak egindako erabaki-proposamena eta Hirigintzako aholkulari uridikoak espedientean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

2022ko urtarrilaren 18an, Lurraldea Batzordeburuak proposatuta, Lurraldea Batzordeak gai honen aldeko irizpena eman dio.

Udalbatzarrak, aho batez, aldeko 21 botorekin (EH Bildu Orereta/Errenteria, Euskal Sozialistak/Socialistas Vascos (ES-SV), EAJ-PNV, Elkarrekin Errenteria),

**ERABAKI DU**

**LEHENENGOA: Behin betiko onespena ematea** Gamongoa 56. sektoreari dagokion Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 6. aldaketari, *Arkilan, Arquitéctos Asociados S.L.P., Abad Abogados, S.L. eta Endara Ingenieros S.L.P.* enpresek 2020ko uztailean idatzitako dokumentuaren arabera; aldaketa horrek ingurumen-azterketa estrategikoa jasotzen duelarik (*Kimar, Consultores Ambientales* enpresak idatzia), honako baldintzatzaileekin:

a) Eremuaren iparraldean eraikiko den zubiak Plan Hidrologikoan zubiak diseinatzeko ezarritako berariazko arauak bete beharko ditu.

b) Aldaketan jasotako jarduketek Jabari Publiko Hidraulikoari eragiten baldin badiote, edo haren babes-eremuetan (zortasuna eta polizia) baldin badaude, Uraren Euskal Agentziaren nahitaezko

parte del arquitecto municipal Xabier Agirre, del Técnico Superior de Medio Ambiente Iñaki Azkarate, del asesor jurídico municipal Vicente Castiella y de la Secretaria General, Nagore Sarasola, favorable a la aprobación definitiva del documento.

Vista la propuesta de acuerdo del Presidente de la Comisión Informativa de Territorio, y la conformidad dada por el Asesor Jurídico de Urbanismo a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

Visto que en fecha 18 de enero de 2022, a propuesta del Presidente de la Comisión Informativa de Territorio, la Comisión de Territorio dictamina favorablemente el presente asunto.

El Pleno de la Corporación, por unanimidad, con 21 votos a favor (EH Bildu Orereta/Errenteria, Euskal Sozialistak/Socialistas Vascos (ES-SV), EAJ-PNV, Elkarrekin Errenteria),

**ACUERDA**

**PRIMERO: Aprobar definitivamente** la 6ª Modificación Puntual del Plan General de Ordenación Urbana relativa al sector 56 Gamongoa, según documento de fecha julio 2020, redactado por Arkilan, Arquitectos Asociados S.L.P., Abad Abogados, S.L. y Endara Ingenieros S.L.P. que contiene el Estudio Ambiental Estratégico (redactado por Kimar, consultores Ambientales), con los siguientes condicionantes:

a) El puente que se prevé construir en la parte septentrional del ámbito deberá cumplir las normas específicas para el diseño de puentes establecidas en el Plan Hirdrológico.

b) Las actuaciones contempladas en la modificación que afectan al Dominio Público Hidráulico o se situen en sus zonas de protección ( servidumbre y policia), requerirán de la preceptiva autorización

ESKU94217e6e-e6c9-4926-ab39-73e91836e4fb

administrazio-baimena beharko dute. Bertan aztertuko dira, zehatz-mehatz, aurreikusitako jarduketak, eta, hala badagokio, horiek emateko kautelak eta baldintzak ezarriko dira.

c) Ibilguen aldameneko obrek igarotzeko libre utzi behar dute Jabari Publiko Hidraulikoaren zortasun-eremua (5 m), oztoporik gabe eta lursail naturala aldatzeko esku-hartzerik gabe (eraikinak, edozein motatako instalazioak edo eraikuntzak, lur-mugimenduak, betelanak, etab.); betiere, egoera onean dagoen ibaiertzeko landarediari eragitea saihestuko da.

d) Hirigintza-garapenak errespetatu egin beharko ditu EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren F.4 atalean eraikuntzarako ezarritako gutxieneko atzeratzeak (12 m). Urbanizazioaren kasuan, Jabari Publiko Hidraulikoaren zortasun-eremuari dagokion 5 metroko zerrenda ere errespetatu beharko da.

e) Drainatze jasangarriko sistemak ezarri beharko dira, proposatutako hirigintza-garapenek eteten duten arroan drainatzea gehiegi eralda ez dadin (Plan Hidrologikoaren 44.1 artikulua).

f) Eskaera berrien kuantifikazioa jaso beharko da, proposatutako garapenen hornidura bermatzeko

g) Urbanizazio-proiektuan zehaztu beharko da aurreikusitako pantaila akustikoaren eta lur-dikearen zenbatekoa sustatzaileak hartu beharko duela bere gain.

**BIGARRENA**: **Jakinaraztea** erabaku hau interesatuei.

**HIRUGARRENA**: **Bidaltzea,** argitaratu aurretik, Plan Orokorraren Aldaketa honen ale bat Gipuzkoako Foru

administrativa de la Agencia Vasca del Agua. Será en el marco de la misma donde se analicen con detalle las actuaciones previstas y se establezcan, en su caso, las cautelas y condiciones para su otorgamiento.

c) Las obras colindantes a cauces deben dejar libre al paso y exenta de obstaculos y, libre de cualquier intervención de alteración del terreno natural (como edificaciones, instalaciones o construcciones de cualquier tipo, movimientos de tierras, rellenos, etc), la zona de servidumbre del Dominio Público Hidráulico (5m), evitándose, en todo caso, la afección a la vegetación de ribera en buen estado.

d) El desarrollo urbanístico deberá respetar los retiros mínimos establecidos en el apartado F.4 del Plan Territorial Sectorial de Ordenación de Ríos y Arroyos de la CAPV para la edificación (12m). En el caso de la urbanización, también deberá respetarse la franja de 5 metros correspondiente a la Zona de Servidumbre del DPH.

e) Se deberán introducir sistemas de drenaje sostenible con el fin de evitar una excesiva alteracion del drenaje en la cuenca interceptada por los desarrollos urbanísticos propuestos ( art. 44.1 del Plan Hidrológico).

f) Se deberá incluir la cuantificación de las nuevas demandas para garantizar el abastecimiento de los desarrollos propuestos.

g) En el proyecto de urbanización se deberá especificar que el importe de la pantalla acústica y del dique de tierra previstos deberá de ser asumido por el promotor.

**SEGUNDO**: **Notificar** el presente acuerdo a los interesados.

**TERCERO**: **Remitir, con carácter previo a su publicación,** un ejemplar de la presente Modificación

ESKU94217e6e-e6c9-4926-ab39-73e91836e4fb

Aldundira, Erregistroan gordailutu dezan.

**LAUGARRENA**: **Bidaltzea** ale bat oso-osorik (teknikoa zein administratiboa), behar bezala izapidetuta, EAEko Lurralde Antolamendurako Batzordera, hark Erregistroan jasotzeko.

**BOSGARRENA**: **Argitaratzea** akordioa oso-osorik, planaren araudiarekin batera, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean. Era berean, akordio hau probintzian gehien saltzen den egunkarietako batean argitara emango da.

**SEIGARRENA**: Ingurumen organoaren zein eragindako administrazioen **eskura jartzea**, HAPOren 6. aldaketaren agiria. Horretaz gain, ondorengoen berri eman beharko zaie: planean ingurumen alderdiak nola txertatu diren; Ingurumen Iraunkortasunerako behin betiko Txostena nola jaso den; onartutako alternatiba hautatu izanaren arrazoiak; jarraipenerako neurriak; eta kontuan hartu diren ingurumen alorreko alderdien gaineko txosten teknikoa.

del Plan General a la Diputación Foral de Gipuzkoa para su depósito en el Registro.

**CUARTO**: **Remitir,** un ejemplar completo (técnico y administrativo) debidamente diligenciado, a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco a los efectos de su archivo.

**QUINTO**: **Publicar** el contenido íntegro del presente acuerdo en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa, junto con la normativa del plan. Igualmente, se publicará el presente acuerdo en uno de los periódicos de mayor circulación de la provincia.

**SEXTO**: **Poner a disposición** del órgano ambiental, así como de las administraciones afectadas, el documento de la 6ª MPGOU, así como una declaración de la manera en que se han integrado en el plan los aspectos ambientales, la manera en que se ha tomado en consideración el Informe Definitivo de Sostenibilidad Ambiental, las razones de la elección de la alternativa aprobada, las medidas de seguimiento y un resumen técnico de los aspectos medio ambientales tenidos en cuenta.

**6. Espainiako Armadak Jaizkibel inguruan egindako maniobrei buruzko mozioa, EH Bildu Orereta/Errenteriak eta Elkarrekin Errenteriak aurkeztua. (2022IMOZ0001)**

Ondoko mozioa irakurri da:

Jaizkibel inguruan Espainiako militarren presentzia aspaldikoa da, eta duela gutxi onartezina den beste gertaera baten berri izan dugu. Bat gehiago esan daiteke, horrelako asko gertatu baitira bai eremu honetan eta baita ere Hego Euskal Herriko hainbat parajetan ere. Orain bertan, egun hauetan, ikusi izan ditugu hainbat militar maniobrak egiten beste herrietan, armak eskuan.

**6. Moción sobre maniobras efectuadas por el Ejército español en la zona de Jaizkibel, presentada por EH Bildu Orereta/Errenteria y Elkarrekin Errenteria. (2022IMOZ0001)**

Leida la siguiente moción:

La presencia de la armada española en los alrededores de Jaizkibel es antigua, y recientemente, hemos tenido noticia de otro suceso. Uno más, habrá que decir, pues son muchos los que han sucedido en esta zona y en otras localidades de Hego Euskal Herria. En estos mismos días hemos podido ver a algunos militares, arma en mano, realizando maniobras en otros pueblos.

ESKU94217e6e-e6c9-4926-ab39-73e91836e4fb

Gipuzkoan askotan onartu dira Espainiako militarren presentziaren aurkako adierazpenak, eta ugariak izan dira egindako mobilizazioak eta ekitaldiak. Errenteriarrok ez dugulako onartzen Espainiako Armada gurean. Ez behintzat gehiengo zabal batek.

En Gipuzkoa han sido múltiples las declaraciones que se han aprobado en contra de la presencia de los militares de España, y han sido múltiples, también, la movilizaciones y los actos. Porque los Errenteriarras no aceptamos a la Armada Española en nuestra localidad. No, al menos, una amplia mayoría.

Jaizkibelen gertatutakora bueltatuz, Jaizkibel mendia 1985etik Herri Onurarako Mendi gisa katalogatuta dago eta 2004az geroztik, gainera, Natura 2000 Sarearen barruan dago Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) gisa. Hori horrela bada ere, Espainiar militarrek tiro eta maniobra eremua dute bertan, mendiaren 371 hektarea hartzen dituena. Tiroak, detonazioak eta bestelako gerra-ariketak egiten dira bertan.

Volviendo al suceso de Jaizkibel. Jaizkibel, desde 1985, está declarado Monte de Utilidad Pública, y además, desde 2004 está dentro de la Red Natura 2000 como Zona Especial de Conservación. Y a pesar de eso, los militares españoles mantienen ahí un campo de tiro y de maniobras que ocupa 371 hectáreas, donde se realizan ejercicios de tiro, detonaciones y otros ejercicios de guerra.

Ezin da ukatu, gainera, Jaizkibel mendia egun aisialdirako, kirola egiteko edota mendi-proba ezberdinak egiteko gune dela eta bertatik (baita tiro eremu barrutik ere) gure herrientzat, baina oro har lurraldearentzat garrantzitsuak diren Santiago Bidea eta Talaia bidea igarotzen direla (azken hau Donostia-Pasaia-Hondarribia lotzen dituen kostako bidea).

Además, no se puede negar que, actualmente, el monte Jaizkibel es un espacio de ocio, de deporte, o de realización de diferentes pruebas. Y que por la zona (incluso por el interior del campo de tiro) pasan caminos muy importantes para nuestra villa y para la provincia como son el Camino de Santiago y el de Talaia (camino de la costa que une Donostia-Pasaia y Hondarribia).

Gainera, tiro eremuak okupatzen duen zonaldean bertan hamarkadak (batzuk 35 urte) dituzten arrantzaleen txabolak eta borda txikiak daude. Horietako batzuk, erabilera librea eta komunitarioa dutena (Azabaratzakoa kasu). Hain zuzen, horietariko batzuk dagoeneko eraitsi dituzte edo eraitsi nahi dituzte Espainiar Militarrek, duela bi urte tiro eremurako pista zabaldu zuten modu berdinean: inolako udal edota ingurumen baimenik eta txostenik gabe. Hau da KBE izendapenak behartzen duen ingurumen-inpaktu txostenik gabe.

Además, en el mismo espacio que ocupa el campo de tiro hay una serie de chabolas y bordas de pescadores con decenios de antigüedad (algunos incluso 35 años), algunos de los cuales tienen un uso comunitario y libre (como el de Azabaratza). Y los militares han derribado o quieren derribar algunas de estas chabolas, del mismo modo como ampliaron la pista de acceso al campo de tiro hace dos años: sin ningún permiso o informe municipal ni ambiental. Es decir sin el informe obligado de impacto ambiental por ser Zona de Especial Conservación.

Prepotentzia eta harrokeriaz aritzen dira bai hemen, bai beste lekuetan. Udalotako eta bestelako araudiei eta legeei muzin eginez. Gure ingurumenak eta herritarrak errespetatu gabe. Paraje babestuetan ere aritzen dira.

Actúan con prepotencia y arrogancia, tanto aquí como en las demás zonas.Desobedeciendo las normativas municipales y de otro tipo, sin respetar nuestros ambientes ni a la ciudadanía. También actúan en parajes protegidos

ESKU94217e6e-e6c9-4926-ab39-73e91836e4fb

Horregatik guztiagatik, egokia deritzogu zaigu Errenteriako Udal honek garbi azaltzea bere posizioa beste behin ere, errenteriarron nahi eztabaidaezina agerian uzteko. Hori horrela izanik, hurrengo mozio proposaena egiten dugu:

Errenteriako Udalak

1.- Jaizkibel mendia herritarren ondare natural gisa aldarrikatzen du, bateraezina dena maniobra militarrak eta antzekoekin.

2.- Espainiar militarrek inolako arau-babesik gabe herri erabilerarako borda bat eraitsi izana salatzen du eta eragindako herritarrei bere atsekabea helarazten die.

3.- Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Ulia-Jaizkibel medietako Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE) itsas eremura zabaltzeko eta itsas babesgune izendatzeko beharrezko izapideak egitea, dagoeneko Euskadiko Biologoen Elkargo ofizialak eta beste hainbat eragilek eskatu duten bezala.

4.- Espainiar Gobernuari eskatzen dio Jaizkibelgo tiro eremua berehala desegitea.

Udalbatzarrak, aldeko 15 botorekin (EH Bildu Orereta/Errenteria, EAJ-PNV, Elkarrekin Errenteria) eta kontrako 6 botorekin (Euskal Sozialistak/Socialistas Vascos (ES-SV)),

**ERABAKI DU**

**Onartzea** Espainiako Armadak Jaizkibel inguruan egindako maniobrei buruzko mozioa, EH Bildu Orereta/Errenteriak eta Elkarrekin Errenteriak aurkeztua. (Testu hori erabaki honen azalpen zatian jasota dago).

Por todo ello, procede que este Ayuntamiento de Errenteria muestre una vez más con claridad su posición para evidenciar la indiscutible voluntad de los errenteriarras. Por lo tanto, EH BILDU de Orereta/Errenteria y Elkarrekin Errenteria realizamos la siguiente propuesta de moción:

El Ayuntamiento de Errenteria

1.Reivindica el monte Jaizkibel como patrimonio natural de los ciudadanos, incompatible con maniobras militares y similares.

2. Denuncia el derribo de una borda de uso popular por parte de militares españoles sin ningún tipo de apoyo normativo y traslada su pesar a los ciudadanos afectados.

3. Insta al Gobierno Vasco a realizar los trámites necesarios para la ampliación de la Zona Especial de Conservación (ZEC) de los montes Ulia-Jaizkibel al ámbito marítimo y su declaración como zona de protección marítima, tal y como ya han solicitado el Colegio Oficial de Biólogos de Euskadi y otros agentes.

4. Exige al Gobierno español el desmantelamiento inmediato del campo de tiro de Jaizkibel.

El Pleno de la Corporación, por mayoría de 15 votos a favor (EH Bildu Orereta/Errenteria, EAJ-PNV, Elkarrekin Errenteria) y 6 votos en contra (Euskal Sozialistak/Socialistas Vascos (ES-SV)),

**ACUERDA**

**Aprobar** la Moción sobre maniobras efectuadas por el Ejército español en la zona de Jaizkibel, presentada por EH Bildu Orereta/Errenteria y Elkarrekin Errenteria, que consta en la parte expositiva del presente asunto.

ESKU94217e6e-e6c9-4926-ab39-73e91836e4fb

**7. Galdera Eskariak.**

Ez da galderarik edo eskaerarik egin.

----------

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, presidenteak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 19:00 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut. Idazkari orokorrak.

Errenteria, 2022ko urtarrilaren 25a

**7. Ruegos y preguntas.**

No se produce ruego ni pregunta alguna.

----------

Y sin más asuntos de los que tratar, la Presidenta levanta la Sesión, siendo las 19:00 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente acta. La Secretaria General.

Errenteria, 25 de enero de 2022

Idazkaria / La Secretaria

Nagore Sarasola Otermin

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU94217e6e-e6c9-4926-ab39-73e91836e4fb**
*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710***
*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710***

# Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| **Titulua / Título:** | 2022IUBA0001-AKTA/ACTA (ERRENTERIAKO UDALA) |
| --- | --- |

Data / Fecha: 2022/01/26 08:50:36
Sinatzailea 1 / Firmante 1: NAGORE SARASOLA OTERMIN - 44164957N
Idazkari Nagusia